

AMIANTOA DUTEN HONDAKINEN KUDEAKETARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Zaldibar, 2020ko ekainaren 16a. Azkenaldian komunikabideetan agertutako informazioetan zalantzan jarri da Verter Recycling enpresaren instalazioetan amianto duten hondakinen kudeaketa, eta enpresak azaldu egin nahi du bere jarduerako urteetan nola kudeatu dituen hondakin mota horiek.

1- Verter Recycling enpresak bere jardueraren hasieratik du amianto hondakinak biltzeko baimena. Hondakin mota horri dagokionez, hondakindegian bildu den kantitatea, batez beste, ez da hondakin guztien % 0,5era iritsi izan urte osoan.

Eusko Jaurlaritzak 2007an lehen ingurumen-baimen bateratua eman zionetik du enpresak baimen hori, eta 2011n eraginkortzat jo zen. Orduan, amianto zuen materialaren jasotzea – Verter enpresak horretarako baimena zeukan– «arriskurik gabea» zen, eta, edozein modutan, oso kantitate txikia zen (urtean, batez beste, ez zen iristen hondakin guztien % 0,5era).

Beraz, Verter Recycling enpresan hutsala izan da amianto duten hondakinen bilketa, eta beti eginda nahitaez behar diren baimen administratiboekin.

2- Osalanek ziurtatu du egokia izan dela jarduera horrekin lotutako lan-arriskuen prebentzioaren kudeaketa.

Osalanek berak hala ziurtatua zuen 2012an. Izan ere, urte hartan, urteko bere kudeaketa-planaren barruan, lan-arriskuen prebentzio-kanpaina bat egin zuen hondakinen kudeaketako enpresa txiki eta ertainetan (ETE). Urte hartarako Verterrek urtebete zeraman hondakinak biltzen (gogora dezagun 2007tik 2011ra hondakindegiko eraikitze-lanak, inpermeabilizazioa, drainadurak eta beste halako lanak egiten aritu zela). Osalanek arriskuak prebenitzeko egindako kanpainaren barruan zegoen Verter eta, hala, hainbat jarduera egin zituen enpresaren makineria ezagutzeko, bazterketa-arriskuan zeuden langileak edo prestakuntza eskasekorik zegoen detektatzeko eta enpresaren kudeaketan prebentzioa nola zegoen integratuta jakiteko. Verterren ez zen horrelako ezein hutsegiterik detektatu.

Osalanek, 2012ko martxoaren 16an, instalazioak bisitatu zituen, eta gabezia txiki batzuk baino ez zituen atzeman. Zehazki, adierazi zuen larrialdi-neurriak bazirela baina ez zela larrialdi-planaren praktikarik/simulakrorik egin, eta egiteko eskatu zion enpresari. Simulakroak eginda, 2012ko ekainaren 4an Osalaneko teknikariek egiaztatu zuten aurreko bisitan prebentzioaren kudeaketaren inguruan egindako oharpenei kasu egin zitzaiela, eta hala jasota dago espedientean.

Beraz, agintari eskudunen aldetik ez da inolako arau-hausteren jakinarazpenik ez zigorrik jaso amiantoaren bilketarekin lotutako lan-arriskuak prebenitzeko kudeaketari dagokionez.

3- Horrenbestez, Osalanek ez zuen inoiz zigor-espediterik hasi, ez antzeko ezer.

Osalanek, aplikatu beharreko araudiari dagokionez, ez zuen ezein hutsegiterik detektatu ez 2012ko bisitan, ez laneko planak onartu zituenean.

Zehazki, ez da hutsegiterik izan langileen prestakuntzari eta informazioari dagokionez. Haiek behar den bezala akreditatutako kanpoko enpresek ematen zuten prestakuntza eta informazioa zuten.

Beraz, komunikabide batzuetan agertutako informazioa ezeztatuz, esan behar da enpresak ez duela inolako zigorrik jaso prestakuntzarekin lotutako hutsegiteengatik, ezta amiantoaren kudeaketarekin lotutako araudia ez betetzeagatik ere.

4- Enpresa amianto-arriskuko enpresen erregistroan (RERA) inskribatu zen horretara behartuta egon zenean.

Hasieran, Verter ez zen amianto-arriskuko enpresa, hala baimenduta dago 31ko martxoko 396/2006 Errege Dekretuan bertan, zeinak amiantoaren eraginpean egoteko arriskuan duten lanei aplika dakizkiokeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituen. 3.2 artikuluan dio ez dela beharrezkoa erregistroan inskribatzea, betiere, langileen amiantoarekiko esposizioa noizean behingoa bada, esposizioen intentsitatea apala bada eta aurreikusitako ebaluazioaren emaitzek argi eta garbi adierazten badute lan-eremuan ez dela gaindituko amiantoarekiko esposizio-mugaren balioa. Gogora dezagun Verterrek mota horretako oso hondakin gutxi jasotzen zuela, eta hondakin horiek ez zirela birrinkorrak (ez zuten zuntzik askatzen eta ez ziren arriskutsuak osasunerako); eraiste-lanetatik etortzen ziren eta, horregatik, beste material batzuekin nahastuta eta kapsulatuta heltzen ziren; hori dela eta, hondakindegiko langileek ezin zuten manipulatu.

Enpresak amiantoa zuten hondakin gehiago jasotzen hasi zenean eman zuen izena RERA erregistroan, hau da, 2017an, eta, orduan, bildutako hondakin guztien % 1era ere ez ziren iristen horiek.

Alde horretatik ere enpresak ez du inolako zigorrik edo ohartarazpenik jaso agintari eskudunen aldetik, eta beti jardun du zeuzkan baimen administratiboan barruan.

5- Zenbait langilek kudeatzen zuten hondakin horien sarrera, eta dagokion prestakuntza zuten denek, aginte eskudunak (Osalan) ziurtatua.

Ez da egia amiantoarekiko hondakinak kudeatzeko gaitasuna Malitik etorritako langileek bakarrik zutenik; haiek, gainerako guztiek bezala, beren lana egiteko lege-eskakizun guztiak betetzen zituzten. Verterreko langile guztiak behar bezala prestatuta zeuden informazio hori emateko kualifikatuta dauden enpresen aldetik, hala nola CUALTIS SMUren aldetik.

Maliko langileak Verter Recycling 2002 SMko langile-taldekoak ziren, gainerako guztiek zituzten baldintza beretan kontratatuak: lan-kontratu mugagabea zuten, alta emanda zeuden Gizarte Segurantzako araubide orokorrean eta Espainian lan egiteko behar diren baimen administratiboak zituzten. Katgoria eta lanpostu bereko langile espainiarrek egiten zituzten lanak egiten zituzten haiek ere, eta lan horien artean denetarik sartzen zen, kontuan hartuta amianto-hondakinen kudeaketarekin lotutakoak hutsalak zirela, azaldu dugun bezala, eta betiere baimen administratiboan baldintzak betez eginak.

Hondakindegia martxan egon den denbora guztian zenbait langilek manipulatu dute hondakin mota hori, eta beti kapsulatuta iristen zen eta alde zurretik ezarritako lekuan biltzen zen. Lan hori egin dutenek materiala modu seguruan manipulatzeko behar den prestakuntza eta ezagutzarekin egin dute. Prestakuntza bere garaian aurkeztu zen, Osalanek onar zezan, eta hark

egiazkoa eta bat zetorrela ziurtatu zuen; horrenbestez, Verter Recycling 2002, SMren Lan Plana onartu zuen, bai 2018an, bai 2019an.

Verter Recycling-en *online* jakinarazpenak: www.verter.eus

Informazioa: Arturo Zubiaga

Tel.: 94 415 86 42